

*Gida didaktikoa*

HAN ETA HEMENGO  
IPUINAK I

**BARBANTXO**

# BARBANTXO

## Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

**Bibliografia** 15.or.

**Egileak** 16.or.

## **GIDAREN AZALPENA:**

Ipuin hau, testu guztiak bezala, testu-sekuentzia bat da: narrazioa eta elkarrizketa tartekaturik daude. Deskripzioa irudiek egiten dute.

Testuaren batasuna galdu gabe, testu guztiei komunak zaizkien ezaugarriak aipatuko ditugu, eta horren inguruan landu daitekeena. Irakasle bakoitzak jakingo du zer eta noiz landu.

Testuen ezaugarriak bata bestearen atzean aipa badaitezke ere, lana egiterakoan ez da hain erraza ezaugarri bakarra lantzea edota eskemari pausoz pauso jarraitzea.

Lanari funtzionalitaterik handiena eman ahal izateko, komeni da proiektuaren forma ematea.

Proiektua haxe litzateke: gelan ipuinak elkarri kontatzea, ondo pasatzeko.

Aldi berean, hizkuntzazko ariketa zuzenduagoak antola daitezke. Beste aldetik, Barbantxok duen arazoa beste hurrek ere izan dezakete, batzuen gehiegikeria jasan behar izaten baitute. Horren gaineko "eztabaida" egin daiteke, talde txikian.

## **HELBURUAK:**

. Ordena kronologikoari jarraituz, fikziozko narrazioa zein errealitatean oinarritutakoa egitea, aditz-denbora egoki erabiliz.

. Ekintzak, ordena kronologikoari jarraituz, ahoz kontatzen jakitea, irakaslearen laguntzaz.

. Jarduera kontrolatuen bidez eta egoera kontestualizatueta, elkarrizketa jakin batzuen imitazioan parte hartzea.

. Hiztegia eta esanahi berriak bereganatzea.

## **JARDUERAK:**

### **1.- Ahozko hizkuntza:**

Proiektua: Talde batek ipuina ikusiko du eta, besteei kontatzeko, paperez egindako siluetak erabiliko ditu.

### **FASEAK:**

#### **a) Mezuaren planifikazioa:**

Kontakizuna prestatzerakoan, lehendabiziko gauza GAIA zehaztea da. Orduan da ipuinaren HARI KRONOLOGIKOARI jarraitzeko eta IPUINAREN ATAL nagusiak zehazteko aukera. Hori egiten dugunean, KOHERENTZIA lantzen ari gara:

Gaiaren progresioa: ipuinak hari kronologikoari darraio.

Irakasleak hurrei galderak egingo dizkie, ipuina ordenan gogorarazteko.

Narrazioaren haria argi utzi dugunean, hondoa eta figura ongi bereizteko, aditz-denbora eta aspektua ongi erabilarazten saiatuko gara. Hartara, hurrek kontatzen dutena irakasleak errepikatuko du, osatzeko, edo galderak egingo dizkie, ilun geratu dena argitzeko.

### **Adibidez:**

Behiak Barbantxo egunero jaten zuen ala egun batean jan zuen?

### **SEMANTIKA:**

Hainbat erregistroren esanahia gogoratu edo ziurtatu behar da: behia, soroa, bazkaria, txantxa, jasan, aitzurra, erein, kiratsa, azkarra...

**b) Testualizazioa:** (Jarri mezuari hitz eta esapide zehatzak, eta eman AHOSKATZE eta INTONAZIO EGOKIA).

**AHOTSAK:** ondo zehaztuko ditugu narratzailea eta pertsonaiak, bai eta zer esan behar duten ere.

- Pertsonaien siluetak egin eta hurrek silueta bana hartutakoan, ipuinaren laburpena antzeztuko dute. Hartara, ikasle guztiek jakin behar dute zenbat pertsonaia diren eta zer esan behar duten. Ez ahaztu haur batek narratzailearen rola egin behar duela.

### **KOHESIOA**

Narratzailearen rola zehazterakoan, honako eduki hauek lantzeko aukera izango dugu:

Izenen kohesioa:

Subjektuaren eta aditzaren arteko komunztadura.

Objektuaren eta aditzaren arteko komunztadura.

Aditz kopulatiboen PARADIGMAK:

NOR, NOR-NORK, NOR-NORI, NOR-NORI-NORK.

Aditz kopulatiboak: hondoa eta figura. Aditz-denbora eta aspektua:

Denborazko antolatzaileak.

Aditzondoa eta deklinabideko markak: -n, -(r)ekin, -(r)i, -(r)a.

### **Ariketa kontrolatuak:**

FUNTZIO jakin batzuetan zer hizkuntza erabil daitekeen irakasteko edo ikasitakoa praktikatzeko:

- Jarduera: Elkarrizketako zati honen imitazioa. Informazioa eskatzea ("gurasoek") eta azalpenak ematea ("Urkik").

Ama.- Urki, ez diguzu esan nahi?

Aita.- Zerbait gertatu zaizu?

Urki.- Ez.

Ama.- (Aitari, nekatuta eta triste.) Gogaitarazten jarraitzen dutela ematen du.

Aita.- (Barbantxo ferekatzen.) Zer gertatu da? Ez diguzu esan nahi?

Urki.- (Negarrari zailtasunez eusten dio.) Betikoa. Barbantxo deitzen didate eta iseka egiten didate.

Ama.- Eta zer egiten diezu?

Urki.-Mehatxatu egiten ditut, baina bost axola zaie! Izan ere, haiek baino txikiagoa naiz.

- Elkarrizketako zati honen imitazioa: Azalpenak eskatzen eta ematen.

Urki.- (Negar egiteko zorian.) Zapalduko nautela esaten didate.

Urki.- (Offean.) Aita, ama! Hemen nago! Behiaren sabelean!

Urki.- (Offean.) Aita, ama! Hemen nago! Behiaren sabelean!

Aita.- (Amari, harrituta.) Behiaren atzean ote da?

Ama.- (Aitari, harrituta.) Zakuren batean ote da? (Urkiri.) Non zara, seme?

Urki.- (Offean.) Aita, ama! Hemen naiz! Behiaren sabelean! Atera nazazue! Azkar!

Urki.- (Offean.) Aita, ama! Hemen nago! Behiaren sabelean!

Aita.- (Urkiri.) Urki, zer demontre egiten duzu hor?

Urki.- (Offean.) Behiak irentsi egin nau!  
Ama.- (Aitari.) Nola aterako dugu?  
Aita.- Arrastorik ez! (Behiari mehatxu eginez.) Behi madarikatua!  
Urki.- (Offean.) Aita, ama! Azkar, atera nazazue! Ez dakizue zer usain txarra dagoen!  
Ama.- (Aitari.) Gizagaixoa! Sabelean kaka baino ez dago!  
Urki.- (Offean.) Irten egin nahi dut!  
Ama.- Bada, behiak kaka egin arte, ezin zara irten!  
Urki.- Aita, ama, horixe bera lortu behar duzue! Kaka eragin!

• Elkarrizketako zati honen imitazioa: Errieta egiten.

Aita.- Zer nahi duzue?

Ane.- Barbantxorekin jolastu nahi dugu.

Aita.- Ba, bera oso haserre dago zuekin, eta ni ere bai. Egin diozuen ez da egiten! Aditu?  
(Ama hurbildu zaie.)

Ama.- Jakizue Urki baxua izango dela, baina oso azkarra eta ona dela!

Jokin.- Txantxetan ari ginen.

Ama.- Txantxetan? Ez al dakizu txantxa batzuek min handia egin dezaketela?

Aita.- Zuen gurasoei esango diegu, jakin dezaten zer-nolako ume lotsagabeak dituzten! Eta, orain, ospa!

### **AHOTSAK:**

• Irakasleak ipuina kontatuko die hurrei, pertsonaia batek dioena beste baten ahotan jarrita.

Adibidez: Amak hau esaten zion Urkiri: zu ez zara argia; gainera, ipotxa zara. Behiak laguntza eskatu zuen.

• Pertsonaia ezkutua: Irakasleak pertsonaia baten silueta ezkutatuko du. Hurrek nor den esan behar dute, irakasleak esaten duenaren arabera.

Adibidez: "Lagundu, lagundu! Behiaren sabelean nago!" "Guk zu zapaltzea nahi ez baduzu, hobe duzu erditik kendu! Aditu?"... Nork esanak dira?

### **DEKLINABIDEA eta JUNTAGAILUAK:**

• Egin galderak: Non bizi ziren? Norekin? Nolakoak ziren lagunak? Norentzat eramaten zuen amak bazkaria? Nora joaten zen Urki ikastera? Nondik irten zen Urki? Urkik noiz esan zuen usain txarra zegoela? ...

• Gezurrak kontatzen: Urki zinera joaten zen egunero. Bazkaria behiarentzat eramaten zuten. Urki behiaren belarririk irten zen. Behiaren sabelean zegoenean, gustura zegoen.

**ADITZ-KOHEGIOA:** figura, hondoa, denborazko antolatzaileak eta aditz-aspektua:

• Egin honelako galderak:

Urki, eskolatik irten ondoren, nora joan zen amarekin?

Noiz galdetu zion aitak eskolan zer moduz?

Urkiren lagunak behin egin zioten iseka ala beti egiten zioten?

Behiak Urki egunero jaten zuen ala egun batean jan zuen?

Noiz oihukatu zuen: "hemen nago, hemen nago!"?

...

### **2.- IDATZIZKO HIZKUNTZA:**

Proiektua: ipuin-bilduma egitea.

Idatzi ipuina, marraztu, margotu eta jarri azala.

(Ipuinaren luzera ikasleen idazmenaren arabera izango da).

Idazten dakitenek zirriborroa egin dezatela, eta irakasleak zuzenduko die. Garbira pasatu ondoren, egin marrazkiak eta egin azala, izenburua jarrita.

Idazten ez dakitenentzat:

Ipuina idazteko, haurren diktaketan oinarritu gaitzezke. Pasatu testu hori garbira, eta eman fotokopia hurrei.

Bestela, honelako zerbait ematen ahal zaie, folioetan banatuta, marrazkia egin dezaten.

- Behin batean, Barbantxo bizi zen, aitarekin eta amarekin. Baxua zen, baina oso ona eta azkarra.
- Barbantxoren klasekoek ipotxa deitzen zioten, eta bera haserretu egiten zen.
- Egun batean, ez zen jolastera joan, eta, baratzean zegoenean, behi batek irentsi zuen.
- Barbantxok gurasoei oihuka deitu zien. Gurasoek behiari sagar berdeak eman zizkioten, kaka egin zezan.
- Behiak kaka egin zuenean irten zen.
- Gurasoek lagunei errieta egin zieten, gaizki portatu zirelako.

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Derioko plazan.

Azala hurrek idatz dezakete.

Irakurtzen eta idazten hasteko, honelako ariketak egin daitezke:

- Emandako hitzen artean, aurkitu "Barbantxo", "Behia", "Aita", "Ama" hitzak.
- Emandako hitz baten bariazioen artean, bereizi eredu bezalakoa dena. "Barbantxo", "Behia", "Aita", "Ama" Barbantx, Barbantxa, Darbantxo, Parbantxo, Karbantxo...
- Kopiatu honako hitzak eskuz: "Barbantxo", "Behia", "Aita", "Ama".
- Honako hitz hauen artean, aurkitu berdintasunak: "Barbantxo", "Behia", "Aita", "Ama".
- Osatu hitza: Barbantx\_, B\_rb\_ntx\_ ...

.

#### **2.4.- GIDOIA EDO BLOKEKAKO LABURPENA, DENBORA ZEHAZTUZ.**

Kapitulu guztiak erlazionaturik daude, denen artean abentura bat osatzen dutelako.

Kapitulu baten egitura:

- Karatula: minutu bat.
- Narratzailea: 2/4 minutu.
- Kondaira: 12/16 minutu.
- Kredituak: minutu bat.

## Gidoi literarioa:

### Itz.: Santi Brouard Aldamiz

NARRATZAILEA: (OFF) Bazen behin baserri zahar bat, herrixka baten ondoan. Baserritar familia ez zen aberatsa. Lurra lantzeaz gain abereak zaintzen zituzten. Behi berezi bat zuten, esnerik gozoena ematen ziena. Baratzean urazak, tipulak, azak eta bestelako barazkiak ereiten zituzten. Julian arduratzen zen baratza zaintzeaz, eta emazteak bazkaria eramaten zion. Ignazia Urkiren bila joan da ikastolara eta biok aitarengana joan dira.

JULIAN: (OFF) A, bazatoz! Eskerrak! Nondik zatoz ba? Eskolatik pasatu zara?

BEHIA: (AD LIB)

IGNAZIA: Kaixo, zer moduz joan zaizu eguna, Julian?

JULIAN: Lanean jo eta ke. Goseak nago. Zu noiz etorriko zain nengoen, laztana. (AD LIB)

IGNAZIA: Ni ere lanpetuta ibili naiz. Eta gainera, Urki berandu etorri da eskolatik.

JULIAN: Eta non da orain? Ez zenuen bakarrik utziko, ezta? (OFF) Badakizu txikitxoak...

URKI: Kaixo, aita! (BARRE)

JULIAN: (AD LIB) Hau sustoa! Hara non zeunden sartuta!

IGNAZIA: (BARRE)

JULIAN: Zatoz hona, maitea! Emadazu musutxo! (AD LIB) Zer moduz zaude, mutiko?

URKI: Oso ondo, aita!

JULIAN: Tira ba. Pozten naiz.

NARRATZAILEA: (OFF) Urki oso azkarra zen, behiarekin jolasten zuen eta bihurrikeriak egiten zizkion. Behiak ez zituen bromak gustuko. Aitak begiratzen zuen neurritik ez pasatzeko.

BEHIA: (AD LIB)

URKI: ... (BARRE) (OFF) Bete-betean jo dut! A zer punteria ona! (BARRE) ...

JULIAN: (BARRE) (OFF) Bai tiro ederra! (ON) (BARRE) Tira, bazatoz baratza ikustera? (OFF) Lanera noa.

URKI: Bai! Lagundu egingo dizut! Aitzurra utziko al didazu, aita? Mesedez, mesedez! (OFF)

JULIAN: Ez, mutiko. Ez horixe. Oso astuna da eta min hartuko duzu.

URKI: Jo! Aitatxo, uztazu! Ez zait ezer txarrik gertatuko? Mesedez! (AD LIB)

JULIAN: Aai, ez dakit ba. Orain hobe dugu bazkaltzea. Bestela zeu jango zaitut nik.

URKI: Beraz gero aitzurra utziko didazu? Ufa! (BARRE)

JULIAN: (OFF) Et, et, et! (ON) Egon, egon! Nik ez dut horrelakorik esan!

URKI: Kontuz ibiliko naiz, aita!

JULIAN: Ai, hori baino gehiago behar da aitzurraz ibiltzeko baina.

NARRATZAILEA: (OFF) Oso bihurria zen gure Urki, eta ez zen geldirik egoten. Dena zen ona jolaserako eta, txantxetan, aitaren keinuak errepikatu egiten zituen.

JULIAN: (AD LIB) Tira, lagundu zamaua jartzen, eta ez idazu burua berotu!

NARRATZAILEA: (OFF) Bihurria bazen ere, aitak esandakoa egiten zuen. Goseak jota ez zegoenean, jakina. Ezin zion goseari eutsi, baina aitak ez zion hasten uzten denak mahaian eseri arte.

URKI: (AD LIB)

IGNAZIA: Bai, lasai. Hona lapikoa. ... Epa... (AD LIB)

URKI: Mm, bai usain gozoa! Zer da, ama? Zer daukagu bazkaltzeko? (AD LIB)

IGNAZIA: (OFF) Egon pixka batean, laster ikusiko duzu eta.

URKI: (AD LIB) ...

JULIAN: (AD LIB) Urki! Amak itxoiteko esan dizu ba!

URKI: ... (AD LIB) Usain hau...

JULIAN: Oraindik platerik ere ez daukagu, gainera.

URKI: (AD LIB) ...

JULIAN: Ume barrabas halakoa!

IGNAZIA: Badator, badator dena. (AD LIB) ... Urki jar itzazu ogia eta aho-zapiak. Azkar, azkar.

URKI: (OFF) Bai, ama. ...

NARRATZAILEA: (OFF) Urkik asko estimatzen zituen gurasoak eta etxeko lanak gustura egiten zituen.

IGNAZIA: (OFF) Ai,... tira, eseri egingo naiz.

URKI: Ea zer dagoen... Mm, indabak!

IGNAZIA: (BARRE) ...

JULIAN: (OFF) Horra indaba gozoak!

URKI: (AD LIB) Bai gozoak!

IGNAZIA: ... Gogoko dituzu, ezta?

URKI: Bai, ama, izugarri!

JULIAN: Kontuz, erre egingo zara eta! Ez gero lapikoa irauli! Ez gehiegi hurbildu! (OFF) Egon geldi!

URKI: (AD LIB) Min egin didazu, aita!

JULIAN\IGNAZIA\URKI: (AD LIB)

JULIAN: Ene! Hau ume tripontzia! Hau da hau jateko modua! Gose zara, ezta?

URKI: Bai! (AD LIB/BARRE)

JULIAN: Bistan dago, bai. Bistan dago.

IGNAZIA: Ez dizu kontatu zer egin duen eskolan. Ez al diozu kontatu behar? ...

NARRATZAILEA: (OFF) Urkik ez zuen kontatu nahi. Ikastea gogoko zuen, baina ikastolako Jokin eta Anek zirikatu egiten zuten beti.

JULIAN: Zer egin duzu, ba? Gauza berriren bat?

URKI: Nire izena idazten ikasi dut.

JULIAN: A, bai? Laster liburuak-eta irakurriko dituzu.

URKI: Baita idatzi ere! (OFF) (BARRE)

JULIAN: Eta jolas-orduan, zer moduz?

URKI: Zera... ez, e... beno...

JULIAN: Zer duzu?

IGNAZIA: Ene! Okerrik gertatu zaizu, ala?

URKI: (AD LI/NEGAR)

IGNAZIA: Ez diguzu esan nahi?

JULIAN: Esan ba. Ezer gertatu zaizu?

URKI: Ez! (AD LIB/NEGAR)

JOKIN\ANE: (BARRE) A zer txikia den!

URKI: (AD LIB) ...

JOKIN: Lapitza ere bera baino handiagoa da!

ANE: Egia! Hara nola eusten dion!

URKI: Uztazue baketan!

NARRATZAILEA: (OFF) Urki oso baxua zenez iseka egiten zioten.

ANE: Jokin, aditu duzu? Norbait hitz egiten ari zaigula iruditu zait. Baina... hemen ez da inor.

IGNAZIA: Uste dut oraindik ere eskolan gogaitarazi egiten dutela. (AD LIB)

URKI: (AD LIB) ...

JULIAN: Esan, seme. Zer gertatu da? Esaguzu ba behingoz.

URKI: ... (AD LIB) Betikoa! (AD LIB) Etengabe Barbantxo deitu... eta iseka egiten didate!  
(AD LIB) ...

JULIAN: (AD LIB) Ai, ene. Halakoxeak dira umeak!

IGNAZIA: (AD LIB) Eta zuk zer egiten diezu?

URKI: ... (AD LIB)

ANE: Aditu duzu? Ez gero inori esan!

URKI: (AD LIB)

JOKIN: Ipotx halakoa! (BARRE)

URKI: Nik mehatxu egiten diet. (AD LIB) Baina... (AD LIB) haiei bost axola! ...

IGNAZIA: (OFF) Lasai, lasai, semetxo.

URKI: ... (AD LIB) Haiek baino askoz ere txikiagoa naizelako! (AD LIB) Zapalduko nautela esaten didate. (AD LIB) ...

IGNAZIA\JULIAN: (AD LIB)

JULIAN: Gizagaixoa, ez negarrik egin. Dena konponduko da eta.

IGNAZIA: Iso, txikitxo. Lasai, laztana.

NARRATZAILEA: (OFF) Egun hartan Urki oso alai zegoen, bere izena idazten ikasi baitzuen eta gurasoei emateko letra handiz idazten ari zenean, Jokin eta Ane barre egiten ari ziren bere kontura. gaizri bat prestatzen ari ziren: Urkiren lana hondatzea. Jokin, isil-isilik, atzetik hurbildu zitzaion eta kolpe bat eman zion marrazkia zikintzeko. Urkik ezin izan zuen saihestu, baina...

ANE: O, bai polita. / Orain, orain duzu aukera. Zoaz. Zoaz haren atzetik.

JOKIN: (AD LIB/BARRE) Tori hau zuretzat!

ANE: (OFF) (BARRE)

URKI: (OFF) Ai, baina ze...?! Begira zer egin (ON) duzun! (AD LIB) ...

JOKIN: (BARRE) ...

URKI: ... (AD LIB) Kontuz ibili gero! Bultzatu egin nauzu! Erori naiz ia! (AD LIB)

ANE: Jokin, aditu duzu? Norbait hitz egiten ari zaigula iruditu zait. Baina... hemen ez da inor.  
/ (BARRE)

URKI: (AD LIB) E?! Ze-zer?!

JOKIN: (AD LIB) Egia! Neuri ere hala iruditu zait! Baina ez dut inor ikusten! (BARRE) ...

URKI: (AD LIB) E! Baina zertan zabiltzate? Ondo baino hobeto dakizue-eta zer gertatu den hemen! (AD LIB)

JOKIN: ... (BARRE)

ANE: ... (BARRE) A, kaixo, Barbantxo! Zu zinen?! Barkaidazu, baina ez zaitut ikusi. ...  
Horren txikia zarenez!

URKI: (AD LIB) Hori ez da egia! (AD LIB) Ondotxo dakizu Jokinek nahita bultzatu nauela!  
(AD LIB)

ANE: (BARRE)

NARRATZAILEA: (OFF) Urki gizagaixoa! Ezin zuen jasan bere tamainagatik iseka egitea.

URKI: (AD LIB) Hurrengoan, txikitu egingo zaituztet! (AD LIB)

JOKIN\ANE: (OFF) (BARRE) ...

ANE: ... (BARRE) A, bai? Hala uste duzu, ipotx halakoa?

URKI: (AD LIB) ...

JOKIN: (BARRE) Ez al da alderantziz izango? Zuk gu txikitu beharrean, geuk txikituko zaitugu zu. (BARRE)

URKI: ... (AD LIB) ...

ANE: (AD LIB) Begira, Barbantxo, hurrengoan, guk zapaltzea nahi ez baduzu, kendu paretik gu ikusi orduko, eta kito. Aditu duzu?

URKI: ... (AD LIB) Ai!

JOKIN: Horixe! (BARRE)

URKI: (AD LIB)

IGNAZIA: Eta ez diozu irakasleari ezer esan?

URKI: (AD LIB) Ez! (AD LIB) Esaten badiot, denek jakingo dute, (AD LIB) eta berriro barre egingo didate! (AD LIB) ...

JULIAN: Ai, ai, ai...

IGNAZIA: Zergatik baina?

URKI: ... (AD LIB) Ipotxa naizela esaten hasiko dira! (AD LIB) Eta arrazoi dute: azken finean, horixe da egia! (AD LIB)

JULIAN: Egia da ez zarela oso altua. ... Baina hori ez da inolako tragedia.

URKI: (AD LIB) Ni kontsolatzeko diozu hori, baina ez da egia! (AD LIB)

JULIAN: (AD LIB)

IGNAZIA: Ez zara altua, baina oso azkarra zara. Eta garrantzitsuena: oso mutiko ona.

URKI: ... (AD LIB) Ama, zuk ez dakizu zer den beti txantxak jasan beharra! (AD LIB)

IGNAZIA\JULIAN: (AD LIB)

JULIAN: Tira, lasai zaitetz, eta egizu lo kuluxka bat. Geroago, hobeto egongo zara eta.

URKI: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Urkiren gurasoak kezkatuta zeuden, hura ez baitzen lehengo aldia. Ez dago eskubiderik pertsona baten kontura barre egitea edo gaizki tratatzea. Animoak ematen saiatzen ziren eta bere burua defendatzen ikasi behar zuela esaten zioten. Baina nola?

IGNAZIA\JULIAN: (AD LIB)

IGNAZIA: Geurea da errua?

JULIAN: Gurea? Ez horixe! Lasai, andrea!

URKI: (AD LIB)

IGNAZIA: Nola lagundu ahal diogu?

JULIAN: Ai, nik ez dakit zer egin! Ume gaizto malapartatuak! (AD LIB)

IGNAZIA: Gizagaixoa ez da konturatzen garrantzitsuena ez dela altua edo baxua izatea,... argia eta zintzoa izatea baino. Ezta? (AD LIB)

JULIAN: Hala da, bai. ... Beno,... lotan dagoela aprobetxatu dugu, lana aurreratzeko. Esnatzen denean askoz lasaiago egongo da.

IGNAZIA: Mm... ez dakit ba, baina tira. ... (AD LIB) ... Hala izango ahal da!

NARRATZAILEA: (OFF) Negua hurbil zegoen eta azken uzta jaso behar zuten, hotzak honda ez zezan. Behia haserre zegoen Urkiren bihurrikeriengatik. Julian eta Ignazia zakuetan gordetzen ari ziren tipulak eta kuiatxo onak. Horietako beste zenbait behiari emateko ziren. Uzta oso ona izan zen eta zaku asko bete zituzten. Bitartean Urki harrapatu zuen: lozorroan zegoen eta gorriak pasatuko zituen esnatu baino lehen.

JULIAN: (OFF) Beteta al dago zakua?

IGNAZIA: (OFF) Bai. Lotu egingo dut.

URKI: (AD LIB) ...

IGNAZIA: (OFF) Orain korapilo ederra egin eta kito.

JULIAN: Ederki, andrea.

IGNAZIA\JULIAN: (AD LIB)

URKI: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Ametsetan, Urki baratzean zen, aitzurrari eragiten. Oso txikia zenez, ezin zuen aitzurra ondo erabili eta buruan kolpe bat hartu zuen. Behiak barre egiten zuen, baina aitaren laguntzaz, aitzurra erabiltzea lortu zuen.

BEHIA: (AD LIB)

URKI: (AD LIB) ... Ai! Hau zartakoa!

JULIAN: (AD LIB/BARRE) ... (OFF) Kontuz ibili behar duzu, astuna da eta!

BEHIA: (BARRE)

JULIAN: Ekarri aitzur hori. Neuk lagunduko dizut. (AD LIB) Eman! Neuk esango dizut nola hartu!

URKI: A, ederki, aita. ... Tori.

JULIAN: Ikusten?

BEHIA: (BARRE)

JULIAN: Honela eutsi behar diozu.

URKI: Bai, bai, utzi niri.

JULIAN: Horrela... ederki,... oso ondo. (OFF) Bai mutiko indartsua!

URKI: Marrubiak ereingo ditugu? (OFF) Nik marrubiak ditut gogoko.

JULIAN: Zuk nahi duzuna. ... Ondo. Segi horrela.

NARRATZAILEA: (OFF) Urkiren ametsa gaiztoa zen benetan. Tipulak ereiten ari zela, behiak umea ikusi eta jan egin nahi zuelako ametsa egiten zuen!

URKI: (KANTARI) La-lara-lara... Kipula hau erein egingo dut. Lurpean sartuko dut. (OFF) (AD LIB)

BEHIA: (AD LIB)

URKI: Ai, ai, hau sustoa! Kendu paretik! Kendu, kendu! Ez nazazu jan! Utzi bakean! Mesedez, ez gero ni jan!

BEHIA: Barbantzuak jateko dira! ... Oso gozo egongo zara. Etorri hona, barbantzu! (AD LIB)

...

URKI: (AD LIB) Ai, ai! Ez, ez! Atzera! Atzera!

NARRATZAILEA: (OFF) Urkik, izuak jota, ziztu bizian alde egin zuen. Sasi batzuen artean ezkutatu zen, baina behiak jarraitu egin zion.

BEHIA: Barbantxo! Txikitxo hori! ... Ez gero ihes egin! ... Zatoz! Nire postrea izango zara eta!

URKI: (AD LIB) ...

BEHIA: Non ezkutatu zara? ... Lehenago edo geroago aurkitu egingo zaitut! (AD LIB)

URKI: Ai ene! Behiaren otordu izango naiz! Jan egingo nau! (AD LIB) ...

BEHIA: (AD LIB) (AD LIB) ...

NARRATZAILEA: (OFF) Behiak Urki irentsi zuen, sabeleraino sartu zen, hura usaina! Hura nazka!

URKI: (AD LIB) Ama! Aita! Lagundu! ... Ai, baina non nago? Behiak irentsi egin nau?! Haren sabelean nago! Bai leku iluna! Hau beldurra! Hau beldurra! Hemendik irten beharra daukat! ... Ama! Aita! Lagundu!! Hemen nago!

IGNAZIA\JULIAN: (AD LIB)

IGNAZIA: Non dago umea? Ez al zegoen baratzean?

JULIAN: Urki! Non sartu zara?

IGNAZIA: Urki! Zatoz! Etxera itzultzeko ordua da!

BEHIA: (BARRE) ...

JULIAN: (OFF) Agertu, mutiko! Hau ez da txantxetan ibiltzeko unea!

IGNAZIA: (OFF) Tira, semetxo! Nahikoa da! Utzi jolasak!

IGNAZIA\JULIAN: (OFF) (AD LIB) Urki! Semetxo! Non zaude?

JULIAN: Beharbada ez du eskolara itzuli nahi, eta horregatik, ezkutatu egin da.

IGNAZIA: Hala uste duzu? Nola bururatu zaio? Laster gautu egingo du. Hau umea!

URKI: (OFF) Aita! Ama! Hemen nago! Behiaren sabel ilunean!

IGNAZIA\JULIAN: (AD LIB) E?! (AD LIB) ...

BEHIA: (AD LIB) ...

IGNAZIA: Entzun duzu, Julian? Urkiren ahotsa da! Baina ez da ondo aditzen! (AD LIB)

JULIAN: (OFF) Bila dezagun ba! (ON) Hemen inguruan egon behar du eta! Urki! Urki!

IGNAZIA: Semetxo! Non zaude?

IGNAZIA\JULIAN: (AD LIB) ...

URKI: Aita! Ama! Hemen nago! Behiaren sabel ilunean!  
IGNAZIA\JULIAN: ... (AD LIB)  
JULIAN: Non zaude, umetxo? ... Ai! Tira, behia! Kendu paretik! (AD LIB)  
BEHIA: (AD LIB)  
IGNAZIA: (AD LIB) Hemen ez dago. Zuk ezer ikusi duzu? Ba al dago alde horretatik?  
Ai ene, hain da txikia!  
JULIAN: Hemendik entzuten da ahotsa, baina ez dago.  
IGNAZIA: Aizu, Julian! Zakuren batean egongo da?  
JULIAN: Ez dakit ba!  
IGNAZIA: Non zara, semetxo?  
URKI: (OFF) Behiaren sabel ilunean! Atera nazazue hemendik! Azkar, amatxo!  
IGNAZIA\JULIAN: (AD LIB) Hara! (OFF) Ene! Baina nola liteke! (AD LIB) ...  
BEHIA: (AD LIB)  
JULIAN: Ene bada! Baina, Urki, zer demontre egiten duzu hor? (AD LIB)  
URKI: Ai, ai, ai. Behiak irentsi egin nau! (AD LIB)  
IGNAZIA: Nola aterako dugu?  
JULIAN: Ez dakit ba! Ez dakit! ... Behi madarikatu halakoa!  
IGNAZIA: Ai, semetxo gizagaixoa!  
URKI: Aita! Ama! Azkar! Atera nazazue! Sekulako usain txarra dago eta! (AD LIB)  
IGNAZIA: Errukarria! Sabelean kaka baino ez dago! (AD LIB)  
JULIAN: Ene! Egia! Guztiz kakazturik egongo da! (AD LIB) ...  
URKI: (OFF) Mesedez! Irten egin nahi dut!  
IGNAZIA: Baina behiak kaka egin arte ez daukazu hortik irteterik!  
JULIAN: ... (AD LIB)  
BEHIA: (AD LIB)  
URKI: Aita, ama! ... Horixe bera lortu behar duzue! ... Behiari kaka eragin! Ai! Hau hatsa!  
IGNAZIA: Hau bai ume azkarra! Hori bai ideia bikaina! ...  
JULIAN: (OFF) Bai horixe!  
IGNAZIA: ... Eskerrak oso ume adimentsua dugun!  
JULIAN: (AD LIB) Horixe bera egingo dugu. Behiari kakagura eragin.  
IGNAZIA\JULIAN: (AD LIB) ...  
IGNAZIA: Horixe. Behiak kaka egitean, semea horrekin batera aterako da.  
JULIAN: Argi dago, bai.  
IGNAZIA: Tira, baina nola...?  
BEHIA: (AD LIB)  
URKI: (AD LIB) Ene! Sagar berdeak eman! Horiek kakagura eragingo diote!  
IGNAZIA: Aa! ... Oso ondo! Horixe egingo dugu! ... Banengoen ni! Ikusten zein azkarra den gure txikitxo?  
JULIAN: Bai horixe! Ederki esan duzu! / Egon lasai! Laster irtengo zara eta behiaren sabeletik!  
BEHIA: (AD LIB)  
URKI: Azkar, aita! ... Ezin dut gehiago! ... Ai! Hau kiratsa! (AD LIB)  
NARRATZAILEA: (OFF) Ignaziak sagarrak bildu zituen. Julianek behiari ematen zizkion eta behiak jan egiten zituen, kostata, baina jan egiten zituen. Urkiri sagar zatiak erortzen ari zitzaizkion burura. Sagar zukua eta zatiak etengabe erortzen zitzaizkion gainera. Hara zenbat jaten zuen behiak! Ignaziak eta Julianek behiari sagar guztiak jatera behartu zuten. Urki zukuaz blai zegoen. Asmoa zera zen: behiaren sabela bihurtzea, eta Urki kanporatua izan zedila halako batean.  
JULIAN: Beste bat emango diot?  
IGNAZIA: Bai, gizona. Kaka egin arte.  
JULIAN: (OFF) Tira ba. Bai oturuntza ederra, e?

URKI: (AD LIB) ...  
IGNAZIA: Behar izatekotan, gehiago ere ekarriko ditut.  
JULIAN: Egon oraingoz. Hauek amaituko ditugu. (AD LIB)  
BEHIA: (AD LIB)  
URKI: ... (AD LIB) ...  
JULIAN: Umea jan duzulako gertatzen zaizu hau, tripontzi halakoa.  
IGNAZIA: Bai horixe!  
URKI: ... (AD LIB) Guztiz kakaztuta geratuko naiz!  
IGNAZIA: Sagar berde ederrak, kaka eragiteko!  
URKI: (AD LIB) Ai! Amaituko ahal da hau!  
JULIAN: (AD LIB)  
BEHIA: (AD LIB)  
URKI: (AD LIB) Banoa! Banoa! (AD LIB)  
BEHIA: (AD LIB) ...  
NARRATZAILEA: (OFF) Kanpoan, behiak isatsa altxatu zuen egundoko uzkerria botatzeko.  
IGNAZIA: (OFF) Hara! Kaka egitekotan dago!  
JULIAN: (OFF) Bai! Buztana altxatu du! Begira!  
BEHIA: (AD LIB)  
JULIAN\IGNAZIA: (AD LIB)  
IGNAZIA: Horra! Hor dator! Hor dator! (AD LIB)  
JULIAN: Ene! Hau kiratsa! (AD LIB)  
IGNAZIA: Hau nazka! Baina horra hor gure umetxoa!  
NARRATZAILEA: (OFF) Eskerrak amesgaizto bat baino ez zela izan!  
URKI: (AD LIB) ...  
JULIAN: Urki! Hau sustoa!  
IGNAZIA: Urki maitea, ondo al zaude, semetxo?  
URKI: (OFF) Bai, mm, zikin samar, baina tira.  
IGNAZIA: Berehala garbituko zaitugu!  
JULIAN: Ai, eskerrak ez den galdu!  
URKI: Ufa, ametsa baino ez zen. Eskerrak, eskerrak!  
URKI: (OFF) Tira, garbi-garbi (ON) nago. Eta orain, baso bete esne gozo. (AD LIB)  
NARRATZAILEA: (OFF) Gurasoak baratza ureztatzen ari ziren. Urki zera erabaki zuen: ez zion behiari hurbiltzen utziko eta are gutxiago jaten! Jokin eta Aneren ahotsak aditu zituen sukaldetik...  
IGNAZIA\JULIAN: (AD LIB)  
JULIAN: Ureztatu hori ondo. ... Horrela. ... Ederki.  
BEHIA: (AD LIB)  
ANE: (AD LIB)  
JOKIN: Hau al da haren etxea?  
ANE: Bai, hala uste dut.  
JOKIN: Deituiozu ba.  
ANE: Barbantxo! Non zaude?  
JOKIN: Txantxa egingo al diogu? (BARRE)  
ANE: Bai horixe! (BARRE) Ikusiko duzu! (BARRE)  
URKI: (AD LIB) E? Niri deika ari dira?  
IGNAZIA\JULIAN: (AD LIB)  
IGNAZIA: Horra ume gaiztoak!  
JULIAN: (AD LIB) Zer nahi duzue?  
ANE: Barbantxorekin jolastu nahi dugu.  
JULIAN: Bera oso haserre dago ba zuekin. Baita ni ere!

ANE\JOKIN: (AD LIB) Baina-baina gu...,  
URKI: (AD LIB)  
JULIAN: Horrelakorik ez zaio egin behar mutikoari! (AD LIB) Ume gaizto halakoak!  
IGNAZIA: Jakizue Urki txikia bada ere, oso azkarra eta ona dela!  
JULIAN: (AD LIB) Ixo, entzun egingo dizue eta.  
URKI: Ene! Niri buruz ari dira!  
JOKIN: Ai, gu txantxetan ari ginen baina! (AD LIB)  
ANE: (OFF) Bai, txantxetan baino ez zen.  
IGNAZIA: Txantxetan?! Ez al dakizue txantxa askok min ikaragarria egin dezaketela?  
(AD LIB)  
JOKIN: (OFF) Ez genion (ON) minik egin nahi!  
ANE: (OFF) Guk ee...  
JULIAN: Zuen gurasoei esango diegu! Zein ume lotsagabeak zareten jakin behar dute eta!  
Eta orain, ospa hemendik!  
JOKIN\ANE: Ai, ai, guk ez... (AD LIB) ...  
Goazen! Goazen hemendik! (AD LIB) ...  
JULIAN: (AD LIB) Alde hemendik! Eta ez gero semearekin nahastu!  
IGNAZIA: Horixe! Aurrerantzean, kontu handiagoz ibili gure semearekin!  
NARRATZAILEA: (OFF) Urki kanpora irten da eta dena entzun du. A zer poza gurasoek defendatu dutelako!  
URKI: Hara! (AD LIB)  
IGNAZIA\JULIAN: (AD LIB) ...  
IGNAZIA: Ai ene!...  
JULIAN: Lasai, andrea.  
URKI: Aita! Amatxo!... Izugarri maite zaituztet! (AD LIB)  
IGNAZIA\JULIAN: (AD LIB)  
IGNAZIA: Ai, semetxo...  
JULIAN: Baita guk zu ere. ... Bene-benetan!  
IGNAZIA: Noiz konturatu zara ba?  
URKI: Aspaldi-aspaldian!  
IGNAZIA\JULIAN\URKI: (AD LIB) ...  
NARRATZAILEA: (OFF) Gurasoek zenbat maite zuten konturatu zen Urki, eta bera Jokin eta Ane baino bizkorragoa ere zela pentsatu zuen. Arazoak berak konponduko zituen aurrerantzean, hori bai gurasoen laguntza onartuko zuen. Eta Ane eta Jokin zer? Ba, Urki ez zuten berriro zirikatu!  
IGNAZIA\JULIAN\URKI: (KANTARI) Tatxin, tatxin, tatxin, kontuz ibili nirekin! Tatxin, tatxin, tatxin, ondo portatu Barbantxorekin! ...  
BEHIA: (AD LIB) ...  
URKI: (OFF) (KANTARI) Tatxin, tatxin, tatxin, kontuz ibili nirekin! Tatxin, tatxin, tatxin, ondo portatu Barbantxorekin! ...

## BIBLIOGRAFIA.

- AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.
- Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.
- DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia
- BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia
- BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.
- CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona
- GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.
- AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.
- El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.
- PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.
- GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya
- TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya
- BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

[www.Zernola.net](http://www.Zernola.net): Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

**EGILEAK**

**GOIATZ  
MULTIMEDIA, S.L.**

**PRODUKTOREA:**  
Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA  
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**  
Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN  
EUSKARAKO ARDURADUNA:**  
Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA  
ERREALIZAZIOA:**  
Mikel Val

**SOINU BANDA:**  
Inhar Val

**EDIZIOA:**  
Goiatz Multimedia, S.L.

**TXOTXONGILOAK:**

Goiatz Multimedia, S.L.

**DEKORATUAK:**

Sara García

**TXOTXONGIOLARIAK:**

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M<sup>a</sup> Rodríguez

**K 2 0 0 0 S . A .**

**Produktore exekutiboa:**

Tomas Ugalde

**Euskarako arduraduna:**

Josu Varela

**Bikoizketako zuzendaria:**

Alvaro Sánchez

**Sarrerako kanta:**

Ana Tere Bengoetxea

**Ahotsak:**

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

**Audioko teknikariak:**

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

**Nahasketak:**

Gorka Lara

Juan C. Cantera

**Produkzioko laguntzailea:**

Ana Urresti

**Koordinatzailea:**

Jon Arce

# **EIMA 2000**

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailaren egokitasun-aitormena du:  
2004-06-25**

**LEGE GORDAILUA: : SS-1585/03**

**L.C. PRODUKTOREA  
tel.: 945-230715**